



Belatz GEREZI GARAIA

Lucio Urtubiaren biografia ilustratua

KOMIKIA

144 or. | 170 x 240 cm. | PAPER-AZALEZ

Salneurria 22,00 €

ISBN 978-84-17065-18-8



Teoria ederren zale baino, ekintza-gizona dugu Lucio Urtubia. Bere bizitza etenik gabeko borrokaizan da eta, batzuk kontrakoa uste duten arren, hori da lagatzen digun ondarea, Lucioaren altxorra. Belatzek, hainbestetan kontatutako pasadizoen inguruan luze galdekatu du Lucio, ekintzak, lekuak, pertsonak, gertakizunak, atmosferak irudietan zehaztasunez islatu ahal izateko. Hala, bada, kaskantarraren biografo ofizial bihurturik, irudigile iruindarrak ezagutzen genituen abenturak eta ezagutzen ez genituen beste hainbat pasadizo ere kontatzen dizkigu. Euskaraz estreinakoz, Cascanten emandako haurtzarora,

lehen banku-desjabetzeak, poliziak despistatzeko asmatutako trikimailuak, familia kontuak, Citibank banketxearekin egindako negoziazioa, muga zeharkaldiak... guztia edo ia guztia kontatu digu Lucioak akzioz eta ekintzez betetako orri hauetan. Izan ere, anarkista menderaezin honek dioen bezala: «Ezer egiten ez duen iraultzaile bat apaiz bat besterik ez da».



Mikel Santos Belatz (Iruñea, 1974), ilustrazioa eta komikigintza ditu ofizio. Mikel Urmenetaren sortzetaldearen parte da eta, bainazio zein nazioarte mailan,

hainbat haur-ipu ilustratu ditu. Horien artean, nabarmentzekoa da Tim Burtonek berak zuzendutako *Pesadilla antes de Navidad* (Penguin) filmaren komikirako egokitzapena. Horrez gain, elkarlanean egindako eta hainbat hizkuntzatan agita-

ratutako testu-liburutan parte hartu du. Osasuna Fundazioarentzat *90 minutos en el Reyno* eta Nafar Gobernuarentzat *Una aventura en tres tiempos* komikien egilea da ere.

txalaparta 30 urte años

Tel. 948 703 934
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.eus